



Testuak lantzen

1. Bete hutsuneak, dagokion partikula ipiniz.

MULTIZINEAK UGALTZEN

Harrigarria da zenbat zine itxi dituzten ... denbora laburrean. Diotenez, azken aldi honetan ez omen zen lehen ... jende joaten zinera eta oso noizean behin betetzen omen ziren lehengo areto handi haiek. "Zertarako behar ditugu ... areto handiak?", esaten zuten enpresariak, "erdi hutsak ikusteko beti?".

Beraz, esan bezala, zine areto askori ere iritsi zaio 'jubilatze' garaia. Batzuk, ordea, zatitu egin dituzte: lehen areto handia, edo ez ... handia, zegoen lekuan, orain bizpahiru areto txiki egin dituzte. Lehen zine bakarrak zirenak orain sala askotako multizine bihurtu dira. "Eta zertarako behar dira ... zine txiki?", galdetuko du beharbada norbaitek, "ez al dira horiek ere hutsik egongo?".

Arrisku hori bazegoen, baina orain arteko esperientzia ez da batere txarra izan. Izan ere, horrela jokatu gaizki hobetu egin dira. Filme-eskaintza zabalagoa denez, lehen ... jende ezezik, lehen baino gehiago ere joaten omen da orain zinera. Eta lehen baino maizago, gainera. ... pelikula ematen dutenez, beti aurkitzen duzu gustukoren bat.

Eta, jakina, negozioa ondo doala ikusita, pozik dira enpresariak.

H.

→ a. Aurkitu testuan hitz eta esaldi hauen antzekoak:

esaten dutenez	hortaz	bilakatu	sarriago
filme aukera	tokian	harritzekoa	bi edo hiru

→ b. Aukera ezazu esaldirik egokiena:

- a) Zine-areto denak sala txikitan zatitu dituzte
 - b) Zine gehienak itxi egin dituzte
 - c) Zine batzuk sala txikitan zatitu dituzte
 - d) Zine gehienek lehen bezala jarraitzen dute
- a) Multizineen esperientzia ondo doa
 - b) Multizineak gaizki doaz
 - c) Multizineak ixten ari dira
 - d) Areto guztiak bihurtu dira multizine
- a) Pelikula gutxiago ikusteko modua dago orain
 - b) Lehen baino pelikula gehiago ikusteko aukera dago orain
 - c) Jendea ez da lehen bezain maiz joaten zinera
 - d) Zaila da gustuko pelikularen bat aurkitzen